

# William Kelly omendu dute udalak eta herriko hainbat eragilek

Joan den udan zendu zen Gernika-Lumoko enbaxadore «ezin hobea» izandako artista • «Gernikako bonbardaketa munduan zehar zabaldu» zuela azpimarratu dute omenaldian

—GONTZAL MENDIBE MIGUEL

Joan den udan zendu zen William Kelly artista estatubatuarra, Gernika-Lumoko enbaxadore izandakoa. Kelly artistak behin baino gehiagotan bisitatu zuen Gernika-Lumo, Gernika Gogoratuz memoria elkarteak gonbidatuta. 80ko hamarkadaren amaieran etorri zen Gernika-Lumora estreinakoz, eta ordutik harreman «oso sendoa» izan zuen herriagaz. Ameriketako Estatu Batuetan jaiotako artista kulturaren eta bakearen defentsaile sutsua izan zen.

Kellyk Gernika-Lumo ezagutu zuenetik, harreman sendoa erai ki zuen Gernika Gogoratuz, Bakearen Museo, Kultur Etxe eta Gernika-Lumoko Udalagaz. Mundutik zehar artea eta bakea defendatzeaz gain, Gernika-Lumoko enbaxadore «ezin hobea» izan zen estatubatuarra. Hori dela eta, Kultur Etxeko zuzendari Kristina Aranak adierazi du «derrigorrezkoa zela» bonbardaketaren 87. urteurrenagaz lotutako ekitaldietan omenaldi bat egitea.

«Gauza asko esan daitezke pertsona apart honetaz. Mundu osoan zehar eroan zuen Gernika-Lumoren izena. Bere lanari eta gogoetari buruz ere gauza mordo esan daitezke: artearen bidez gizarte bidezkoagoa eta humanistikoagoa lortzea posible zela uste zuen Kellyk; arteagaz mundua aldatu daitezkeela sinesten zuen», adierazi du Aranak. Kellyren ustez, mundua aldatzen laguntzen duen zerbait aurkitzean, —batik bat, artea—erruki handiagoz pentsatzen eta maitasun handiagoz jokatzeko da. Arteak bala bat geldiarazi dezakeela uste zuen Gernika-Lumoko enbaxadoreak.

## Museoarekin lotura

Harreman berezia zuten Bakearen Museoak eta Kellyk. Museo zuzendari Iratxe Momoitiok azaldu duenez, azkenengo 24 ur-



William Kellyren omenaldira hurbildutako ordezkariak atzo, udaletxe sarreran kokatuta dagoen Kellyren artelanagaz. GONTZAL MENDIBE MIGUEL



Kellyk Foru Plazan antolatutako performance-a. GERNIKAN GOGORATUZ

teetan, ia urtero etorri izan da Gernika-Lumora. Hori dela eta, gutxienez, omenaldi «xume bat» merezi zuela aitortu du. Momoitioren ustez, Kellyri esker hasi ziren Gernika-Lumoko elkarte asko artearen eta bakearen inguruan lan egiten; 2000. urtean emian zuten elkarlanerako lehen pausoa, *Arte de la Reconciliación* erakusketagaz. Erakusketa horretatik, gerora fruituak emango zituen talde sendoa atera zen: Kellyk, Momoitiok, Maria Oiangurennek eta Alex Carrascosak osatutakoa.

Aipatutako talde horretatik

sortu ziren erakusketak eta proiektuak biltzen dituzten hurrengo jardunaldiak: Berradiskidetzarako artea, Arte humanista eta Nazioarteko Arte eta Bakearen Jardunaldiak.

Bi urterik behin egiten dituzte eta, Kellyri esker, mundu osoko artistak hurbildu dira Bakearen Hiria deritzonera. Artistaren ekarpenen artean, Momoitiok bi aipatu ditu: lehenengoa, 2001an egindakoa, zinetan Foru Plaza osoa kandelaz bete zuten; bigarrena, plaza bereko arkuak siluetaz eta kandelaz jantzi zituenekoa. «Pertsona bikaina, oso umi-

“

«William Kellyk arteagaz mundua alda daitezkeela sinesten zuen»

Kristina Arana  
Kultur Etxeko zuzendaria

«Gernika-Lumok eduki zezakeen enbaxadorerik onena izan zen Kelly»

Iratxe Momoitio  
Bakearen Museo zuzendaria

«Bakearekin eta artearekin oso konprometituta zegoen artista zen»

Jose Mari Gorroño  
Gernika-Lumoko alkatea

la eta bakegile sutsua zen. Gernika-Lumok izan zezakeen enbaxadore onena zen. Mundu osoan zehar aipatzen zuen Gernika-Lumo: Hegoafrikan, Ameriketako Estatu Batuetan, Australian, Japonian...», goraiatu du Momoitiok.

Museoko zuzendariak azaldu duenez, egunotan Kellyren omenezko hainbat lan egongo

dira udalerrian. Lehenengoa atzo aurkeztu zuten; Foruen Plazan dagoen Kellyren ibilbideari buruzko totema da; bigarrena udaletxe sarreran kokatuta dagoen *Gernika Lekukotasuna* artelana da; hirugarrena udal liburutegian, Foru Plazara ematen duen erakusleihoan, liburuz osatuta jarri duten «erakusketatxoa» da.

Oiangurennek, Bakearen Aldeko Ikerketa Zentroko zuzendariak, gogoratu du Kultura eta Bakearen Nazioarteko 34. jardunaldien barruan beste omenaldi bat egingo zaiola: eguaztenean (apirilak 24) izango da, 12:00etan, eta bertan izango dira Carrascosa, Momoitio eta Oianguren bera.

Gernika-Lumoko alkate Jose Mari Gorroñok ere ez du hitzordura falta nahi izan. Kelly «oso ondo» ezagutzen zuela aitortu du, eta pertsona oso umila zela nabarmendu du. Arkitektoa izanik, Gernika-Lumoko eraikinekin obsesioa zeukala eta herria «asko» gustatzen zitzaizola azpimarratu du. «Bakeagaz eta arteagaz oso konprometituta zegoen. Gernika-Lumora zetorren bakoitzean, beti esaten zidan gauza berbera: 'bonbardaketako biktimek herria horrela ikusiko balute...', argitu du Gorroñok.